

BI AUNTZ

*Auntzak ez (lituo pizti onak, zenhait kalte ekarri oi diz-
kigutelako. Baiña gurean badira bi; leen ez, nik ez nuen
auntzik etxean ezagutu, Inguruko etxeetan bai baziran or-
enzen: oiek sarri irixten ziran gure soro-barreneko sasi,
ayantz, landare herri ta olakoak moztu ta ondatzeraiño ere.
Gaur, guk ere, baditugu.*

Doiñu: Xenpelar-en «frantsesarena» bezela.

Maitez, adiguritsu
esan zidan Jone-k:
—«Patxi, auntzik nai ote?»—
Bertatik neronek:
—«Pizti egoki autak
al dituzan oiek?»--
Zaindu ezkeru baietz
esaustan emaztek.

Geroztik, bada, bi auntz
dauzkagu ukulluan'
Bizar luze ta anka mei
itxura ez dute noski
bertxiña (1) lekuan.
Legeak beren aurka
dira liburuan,
zugaitzak orzka lertzen
dituztelakuan.

Zergatik ez dituzu
lokiz ondo erutzen?
Auntza etxe inguruan
txiroen bei ornen,

(1) Kolore.

bi-iru buru edonork
bear lituke etxen:
ona lekarkioke,
irabazi lerdan,

Auntzarentzat eder da
jan-bazka zernaiko,
abe (2), orri, ta ota,
sasi-kimu trinko...
Zai-zukua neguan
ederki da torko;
garbi ez danik, baiña,
ez dizu irentsiko.

Emakor, sendo duzu
auntza sarobean,
esne osasuntsu du
errape leunean.
Ume, gazte naiz zartxo
gaixorik etxean?
Auntz-esnea bai duzu
onenik arean.

Ekarle da osorik:
aumeak erditzen,
urte-buruz lauraiño
sarri ditu izaten.
Ez du lan aundirikan,
ez miñik ematen,
esne ta gazta berriz
dirua jasotzen.

Auntzak nekez izan oi
dizu gaitzepelik,
aren esnea egiz

(2) Zutoin,

artu zuk gordiñik.
Gazta koipetsu dator
—ez izan zalantzik-
auntz eta ardien gurin
askodun esnetik.

Begoz, bada, gurean
bi auntz bizardunok,
birako lar-sasiak
jan oi dituztenok.
Noizka auntz aragia
jango etxeuok,
jai-igandez obeki
izan nai dugunok.

URA

*Ura ez dugu bear bezela iñoiz goralduko. Munduarentzat
bai mesedegarril eta baserrian... Mendi-goitik aitz-arte ta
sakan beera iskanbiltsu datorkigu elur ta euri zaparrada os-
udaldian, ordea, zurmurtsu ta odoldi azpitik nolako
goxotasunez doan ibarrerantza. Guk eta abereak edateko bear
dugu, eta loi dagona garbitzeko.*

Doiñu: Xenpelar-en «Andre txarren bentajak.,,».

Nora-ezean euki bear da
ura baserri ondoan,
urik ezikan ez dakit nola
bizi daiteken auzoan.
Egarrria urak itotzen digu
naiz etxean naiz basoan;
arpegi, esku, zapi ta dana
urak zuritzen osoan.